



a u z o z a u z o

## herrera-bidebieta

# San Luis jaiak

iritsi zaizkigu San Luis jaiak. Antolatzaileek aurtengoan ekintza ugariz betetako egitarau zabala aurkeztu digute.

Ekainaren 17tik 23ra bitartean Herrerak aukera ugari izango du jai-giroan erabat murgilduta egoteko. Kontutan izan behar da astelehenean, ekainaren 20an, eta asteazkenean, ekainaren 22an, ez dela jai ekintzarik izango.

Ostiralean arratsaldeko zazpitan emango zaie hasiera San Luis jaiari enparantzatik botatako suzirikin eta pregoiaren irakurketarekin.

Hasiera hau girotzeko Kilikariak fanfarrea, Perez de Lazarraga dultzaineroak eta Aitzol Diez, Iñaki Airezana eta Imanol Bai-gorrotegi trikitilariak izango ditugu.

Lehen egun honetan azpimarragarriena gaueko hamarretatik aurrera ospatuko den kontzertua dugu. Gurutze Beltzak,



Soul Steet eta Acido Sulfurico talde gasteiztarrak musika saioa eskainiko dute.

### Asteburuan kirola nagusi

Larunbaterako kirol ekintza ugari daude iragarrita, hala nola, goizeko 10etan hasi eta eguerdira arte futbol, mendi, eskalada zein paleta gomazko txapelketak izango dira.

Eta gauean Ostadar taldearekin luzaroan dantza-

teko aukera izango dute zahar nahiz gazteek.

Igandean ere kirolak izango dira protagonista Herrera auzoan, honela, Bola Joko Txapelketa herritarra izango da, Agustín Paulisen omenez antolatutako futbol txapelketa, eskuzko pilota txapelketa- ren erakustaldia eta Joakin Intxausti, «Pipas», memoria.

Eguerdirako Idi Dema iragarrita dago Lasarteko Telleria eta Hernaniko

Zerainekin eta arratsaldean Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko norgehiagoka izango da ikusgai herri kirole-tan. Gaua Iratxo taldeak alaituko du.

### Asteartean San Luis

Astelehena lan eguna izango da eta asteartean Herrerako San Luis Gonzaga zaindariaren eguna ospatzen da, auzoaren Festa Nagusia izanik, San Luis Parrokian gure artean ez dauden guztien oroi-menez meza nagusia izango da. Arratsaldean dantza taldea, jubilatuentzat askaria eta Landarbaso Korralaren aktuazioa izango dira.

Jaiak amaitzeko ostegunean, hilak 23, gaueko bederatzietatik aurrera San Juan suaren inguruan dantzaldia izango da.

Irutxulok ere jai alait-suak opa dizkie herrertar guztiei!

LARRAIZ GARMENDIA (Tfnoa.: 391267)



## TRANSMISIOAK

Ondo pasau San Luis Jaiak!

Jose Elozegi, 121 Tfnoa.: 400268 - 400392  
Fax: 397193 Donostia

**BIKOTE**



**KAFETEGIA**

Zedro plaza 2  
☎ 39 99 52

## Naiara

**oinetakoak**

Jose Elozegi, 131  
☎ 40 02 47 HERRERA



## TXINGURRI TABERNA

**Eguneko menua 750 pezeta**  
**Berezitasunak**

☎ 394553  
Txingurri, 12  
HERRERA

*bakailau tortila, bakailau frojitu,  
saiheski erre, tofex-eko sagardoa*

## MARIASUN

### janaridenda

J. Elozegi 131  
HERRERA

intxaurrondo


# Monseko San Juan jaiak

**h**erri guztiak festa giroan murgiltzen diren garai honetan intxaurrondotarrak ere ez dira atzean geratzen. Urtero bezala, Monseko jaiak izango ditugu ekainaren 17tik 26ra bitartean. Aurtengo antolatzaileak, Mons eta Ipar-Haizea elkarteak dira baina ekintzetan auzoko erakunde ugari hartuko du parte.

Egitarau zabala prestatu digute aipatutako elkarteek. Gaur ostirala, arrtsaldeko 7etan emango zaie hasiera ofiziala festei ohizko txupinazoarekin. Hortik aurrera auzoa festa giroan izango dugu aste osoan zehar.

23ko San Juan suaz gain, zenbait ekitaldi berezi aipatu behar dira: tortilla lehiaketa, krossa, diskotekaren inaugurazioa, bakailu lehiaketa, rock kontzertua, trialsin erakusketa, haurren parkea...

Igande honetan, hilak



Intxaurrondoko gaztetxoek aurten ere aurreko urtetan bezalaxe gure herriko dantzak eskainiko dizkigute.

19, areto futbol partidu dibertigarri bat ikusi ahal izango dugu, ezkondu eta ezkongabeen artekoa hain zuzen ere.

Bestalde, datorren igandean, hilak 26, nafarrak eta gipuzkoarrak izango ditugu pilota lehiari, Carrete-De Santos eta Otxoteko-Apezetxea. Festak zezen


suzkoarekin bukatuko dira igandean.

Aipatu beharra dago, elkarteek ahalegin handia egin dutela auzoko koadriren partaidetza bultzatzen. Horrela, auzoko musika, folklore eta kirol taldeek hartuko dute parte.

Intxaurrondo auzoan alde bakoitzak bere festa

propioak egiten dituenek, askotan zaila izaten da jendea erakartzea. Horregatik, adin guztietako jendearentzat prestatu dute egitaraua. Gainera, uda gainean izanik, festarako gogoia pizten zaigu denori berehala.

NAGORE IRASTORZA (Ifnoa.: 28 57 49)



Roxali

## Konponketak noizko?

**Intxaurrondon bizi garenok betidanik ezagutu dugu Garro zubia. Auzoa txikiagoa zenean, bere zerbitzua ondo baino hobeto betetzen zuen. Baina hori ez da egungo errealitatea. Bi kotxe pasatzeko estuegia da eta espaloirik ere ez duenez, zailtasunez pasa daitezke kotxe bat eta oinezko bat batera. Auzoa handitzen ari den heinean, bere zahartasuna eta kaxkartasuna agerian geratzen dira eta askotan arriskutsua izaten da zubia gurutzatzea. Plan Orokorrak ez du bere konponketa aurreikusten. Noiz arte jarraituko du horrela?**